

9. atala: Bakarka

Bederatzigarren atala: Alien

9.1.- Ekaitz magnetiko baten ondorioz, Kevin eta Tasio kontakturik gabe gelditu dira Trebiñu II-ko sistema zentralarekin, eta berriketan hasi dira.



Entzun arretaz eta erantzun galderei:

1.- Zerekin konparatzen du Tasiok espaziontzia?

- a) Nostromorekin b) Alienekin c) Nostradamusekin

2.- Nor joaten da zine-aretoetara?

- a) Tasioren seme-alabak b) 100 urtetik gorakoak c) Tasio eta Antxon

3.- Zein da Ripley tenientea?

- a) Pelikulako protagonista b) Donostia saria jaso zuena c) Sigourney Weber ordezkatu zuena

4.- Zein da Alienaren helburua?

- a) Espaziontzikoak ugaltzea b) Espaziontzikoak hiltzea eta ugaltzea c) Ripley tenientea hiltzea

5.- Zer du gogoko Kevinek?

- a) Reggetoia b) Kultura klasikoa c) Liburuak

9. atala: Bakarka

9.2.- Kevin ez da zinemazalea, eta zera dio horren inguruan:

*“Nik beti pentsatu dut **100 urtetik gorakoentzako** entretenimendua zela zinea”.*

“(e)tik gora” egitura erabiltzen du 100 urte baino gehiagokoentzat dela adierazteko.

zenbatzailea + izena + **-(e)tik gora**.

zenbatzailea + izena + **-(e)tik behera**.

Hona hemen adibide batzuk:

*“Bost urtetik **beherakoek** sarrera debekatua dute”* (bost urte baino gutxiago dituztenek)

*“Zortzi azterketatik **gora** zuzendu ditu”;* (zortzi azterketa baino gehiago)

*“Lasterketa bost kilometrotik **gorakoa** izango dela esan dute”* (bost kilometro baino gehiagokoa)



Hona hemen Donostiako Zinemaldiari buruzko pasarte txiki bat. Berridatzi lodiz dagoena “-(e)tik gora” forma erabiliz:

Zinemaldiaren 64. edizioa da aurtengoa eta bertako emanaldietan euskarazko filmak ere ikusi ahal izango dira. **40 emanaldi baino gehiago**, bestalde, euskarazko azpidatziekin eskainiko dira.

Zinemaldiak dagoeneko **15 emakume baino gehiago** saritu ditu orain arte. Aurtengo sariduna Sigourney Weaver izan da.

Sigourney Weaverrek jaso du Donostia Saria, egindako ibilbideari aitortza eginez. Weaverrek **42 film baino gehiago** egin ditu.

Aktoresak **65 urte baino gehiago** ditu, baina lanean jarraitzeko asmoa agertu du: “Mundua aldatu da eta emakumeentzat oso garai ona da hau” dio.



Transkripzioa (02:50)

T- Eskisabel kapitaina, ezin dut kontakturik ezarri Trebiñu II-ko sistema zentralarekin.

E- Lasai, Tasio. Ezta guk ere. Ziurrenik ekaitz magnetiko bat izango da.

T- Ados.

E- Espazio-estazioan dagoen Hal-ione ordenadore zentralak dena prest izango du iristen zaretenerako.

Hemen Hal- ione, lurretara deika. Hal-ione, lurretara deika. lurreta, arazo bat dugu.

T- Ekaitz magnetikoa... um. Nostromo zirudik honek.

K- Ze zerikusi du adibinoak honekin?

T- Nostradamus ez, Nostromo.

K- Eta zer da hori?

T- Orain gutxi Alien ikusi nian, badakik, film klasikoa. Bertan azaltzen den espazio-ontziaren izena duk. Ez al duk ikusi?

K- Zenbat aldiz esan behar dizut ni zinemaren osteko belaunaldikoa naizela?

T- Ba, hara, kasualitatea zirudik, baina, gutxi gorabehera duela mende-erdia, Donostia saria eman ziotean Zinemaldian, Alien pelikulako protagonista berari, Sigourney Weaverri.

K- Nik beti pentsatu dut 100 urtetik gorakoentzat entretenimendua zela zinea.

T- Ba ni tarteka joaten nauk Antxonekin.

K- Baina, zine-aretora?

T- Bai.

K- Eta seme-alabekin?

T- Ez, horiei ez zaie gustatzen.

K- Eskerrak normalak atera zaizkizuen.

T- Hi, ez hadi pasa, e?

K- Niri hotzikara ematen didate zine-aretoek. Zaharrez beteta beti. Heriotza-usain horrekin.

T- Esaten nian moduan, Ripley tenientea espazio-ontzian sartzen zaien izaki estralurtar nazkagarri bat akabatzen saiatzen duk pelikula osoan zehar...

K- Ez al zen Sigourney ez dakit zer?

T- Sigourney Weaver... bai, hori aktorearen izena, Donostia saria jaso zuena.

K- A, bale!

T- Ba kontua duk, Aliena ez dela soilik espazio-ontzian guztiak akabatzerara sartu. Ez. Ugaltzea duk bere helburua eta Ripleyrekin, ba...

K- Ripley edo Sigourney?

T- Niri adarra jotzen ari ba haiz, muturreko bat emango diat, e?

K- Ez da hori, Tasio... Baina badakizu ni normala naizela... niri ez zait zinema gustatzen, kultura eta gauza desfasatu horiek.

T- Hik ez duk pelikularik ikusten?

K- Ez.

T- Eta libururik irakurtzen?

K- Amak paperezko gauza horietako batzuk bazituen etxean...baina nik...

T- Eta antzerkia? Dantza? Literatura?... egongo duk zeozer, Jhonson!

K- Txapa ematen jarraitu baino lehen argi esango dizut. Niri kultura klasikotik gustatzen zaidan gauza bakarra reggetoia da.

Erantzunak

9.1.- 1-a / 2-c / 3-a / 4-b / 5-a

9.2.- Zinemaldiaren 64. edizioa da aurtengoa eta bertako emanaldietan euskarazko filmak ere ikusi ahal izango dira. **40 emanaldik gora**, bestalde, euskarazko azpidatziekin eskainiko dira.

Zinemaldiak dagoeneko **15 emakumetik gora** saritu ditu orain arte. Aurtengo sariduna Sigourney Weaver izan da.

Sigourney Weaverrek jaso du Donostia Saria, egindako ibilbideari aitortza eginez. Weaverrek **42 filmetik gora** egin ditu.

Aktoreak **65 urtetik gora** ditu, baina lanean jarraitzeko asmoa agertu du: "Mundua aldatu da eta emakumeentzat oso garai ona da hau" dio.